

Metodo asko erabiliko genituen, marketinga oso garrantzitsua baita horrelako empresentzat.

Hasteko, internetez egingo genuke. Web-gune bat sortuz, eta bertan geure datu guztiak ipiniz. Bertatik geure zerbitzuen datuak ikusiko zituzten bezeroek. Horrela horrelakorenbat beharko balute hor edukiko zuten leku bat geure informazio guztiarekin, adibidez prezioak edo geure zerbitzu guztien xehetasunekin.

Jarraituz, gaur egungo sare sozialetan profil bat sortuko genuke eta bertan geure agentziaren eta web-gunearen informazioa edo argazkiak igoko genituzke. Bertan adibidez, instagram. Hor gaur egungo pertsona gehienak ibiltzen direlako eta ezagutua izaten lagundu dezakelako.

Azkenekoz, diru-sarrera handiak edukiko bagenitu, telebistan anuntzio bat egitea pentsatuko genuke edo hala nola, interneteko web-gune garrantzitsuetan, youtuben adibidez. Baina hau, ez zen geure hasierako proiektu bat izango, diru asko behar baita honetarako.

3 metodo hauek erabiliz, uste dugu, nahikoa izango dela geure prezio konpetentekin, bezeroak erakartzeko eta geure empresak benefizioak atera ahal izateko.